Basque - Espirituala Guerra Introducción Liburu Santuek - SW Intro Scriptures

Lukas 17:5 Apostoluek eskatu zioten Jaunari: –Gehi ezazu sinesmena guregan.

Erromatarrei 10:17 Beraz, mezutik dator sinestea, eta mezua Kristoren berri ematea da.

Lukas 11:1 Behin batean, Jesus otoitzean ari zen toki batean; amaitu zuenean, bere ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakats iezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala».

1 Timoteori 2:1-4 Ezer baino lehen, gizaki guztien alde eskari, otoitz, erregu eta esker-emateak egiteko eskatzen dizut; 2 baita erregeen eta agintea duten guztien alde ere, bizitza bare eta baketsuan bizi gaitezen, jainkozaletasunez eta gizabidez. 3 Eder eta atsegin zaio hau Jainko gure Salbatzaileari, 4 honek gizaki guztiak salbatu eta egia ezagutzera hel daitezen nahi baitu.

Zakarias 3:1,2 Gero, Jaunak Josue apaiz nagusia erakutsi zidan, Jaunaren aingeruaren aurrean zutik. Josueren eskuinaldean Satan etsaia zegoen salatari. 2 Jaunaren aingeruak esan zion Satani: «Isilaraz hazala Jaunak, Satan, isilaraz hazala Jerusalem aukeratu duen Jaunak. Josue sutatik ateratako ilintia bezala da».

Efesoarrei 6:12 Gure borroka, izan ere, ez da hezur-mamizko arerioen aurkakoa, goiko espiritu gaiztoen aurkakoa baizik, mundu ilun honetako aginte, ahalmen eta botereen aurkakoa.

Efesoarrei 6:10,11 Bukatzeko, sendo zaitzatela Jaunak bere indar ahaltsuaz. 11 Har itzazue Jainkoak ematen dizkizuen armak, deabruaren maltzurkeriei aurre egiteko gai izan zaitezten.

Efesoarrei 6:13-17 Horregatik diotsuet: Hartu Jainkoak ematen dizkizuen armak, une txarrean gogor eutsi eta zailtasun guztiak, atzera egin gabe, gainditu ahal ditzazuen. 14 Zutik, beraz! Lotu gerrikotzat egia, jantzi bularrekotzat zintzotasuna 15 eta oinetakotzat bakearen berri ona zabaltzeko ardura. 16 Eduki beti besoan babeskitzat fedea, etsaiaren suzko geziak oro itzali ahal izateko. 17 Hartzazue burukotzat salbamena, eta ezpatatzat Espirituaren ezpata, hau da, Jainkoaren hitza.

Hebrearrei 4:12 Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eragin handikoa, aho biko ezpata bera baino sarkorragoa: gogo eta espirituaren sakon-sakoneraino sartzen da, pertsonaren zokorik ezkutueneraino, eta barneko pentsamendu eta asmo guztiak miatzen ditu.

Lukas 4:8 Jesusek erantzun zion: –Idatzia dago: Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu.

Efesoarrei 6:18 Egin otoitz eta eskariak etengabe, Espirituaren indarrez. Egon erne, beila eginez, fededun guztien alde erreguan lehiatsu;

1 Samuel 17:45-47 Davidek ihardetsi zion filistearrari: –Ezpataz, lantzaz eta azkonaz armatua zatozkit. Ba, ni Jaun ahalguztidunaren izenean natorkizu, zuk desafiatu dituzun israeldar gudarosteen Jainkoaren izenean. 46 Nire esku jarriko zaitu Jaunak gaur bertan. Hilko zaitut eta burua moztuko. Zeruko hegaztiei eta lurreko piztiei emango dizkiet gaur bertan filistear gudarien gorpuak. Honela, lur osoak jakinen du baduela Israelek Jainkoa. 47 Eta hemen bilduak diren guztiek jakinen dute, Jaunak ez duela behar ezpatarik, ez lantzarik gu salbatzeko, Jaunak baitu gudua erabakitzen. Gure esku jarriko zaituzte berak.

Lukas 10:17-20 Hirurogeita hamabi ikasleak poz-pozik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: –Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izena aipatzean. 18 Jesusek esan zien: –Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. 19 Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menderatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk kalterik egin. 20 Halaz guztiz ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako.

2 Korintoarrei 10:3-5 Gizakia naiz, bai, baina ez naiz giza irizpidez ari borrokan. 4 Gure borrokako armak ez dira gizakiarenak, Jainkoarenak baizik, eta hiri gotorrak ere errausteko indarra dute: argudio faltsuak 5 eta Jainkoaren ezagutzaren aurka altxatzen den harropuzkeria oro errausten ditugu, eta giza arrazoiketa oro Kristoren morrontzapean jartzen, berari obedi diezaion;

2 Timoteori 1:7 Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik.

Mateo 12:28,29 Deabruak Jainkoaren Espirituaren indarrez botatzen baditut, ordea, argi dago Jainkoa zuen artean errege izaten hasia dela. 29 «Izan ere, nola sar daiteke inor indartsu baten etxera lapurretara, aldez aurretik hura lotzen ez badu? Orduan bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak.

Efesoarrei 1:13 Eta zuek ere egiaren mezua, salbatzen zaituzten berri ona, entzun eta Kristorengan sinetsi duzuenok, aginduriko Espiritu Santuak zigiluz bezala markatu zaituzte;

Eginak 19:6 Paulok eskuak ezarri zizkienean, Espiritu Santua etorri zitzaien gainera, eta hizketa arrotzez mintzatzen eta profeta gisa hitz egiten hasi ziren.

Markos 16:15-18 Eta esan zien: «Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berri ona izaki guztiei. 16 Sinesten eta bataiatzen den oro salbatua izango da; sinesten ez duena, berriz, kondenatua. 17 Sinestedunek seinale hauek izango dituzte berekin: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berriz mintzatuko dira, 18 sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanik ere, ez die gaitzik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

1 Joan 1:9 Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak bekatuak barkatu eta gaiztakeria orotatik garbituko gaitu.

Irteera 20:5 Ez ahuspeztu haien aurrean, ezta gurtzarik eman ere, ni, Jauna, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut hirugarren eta laugarren belaunaldiraino ere;

Salmoak 109:17 Madarikazioa zuen gogoko: betorkio gainera! Bedeinkaziorik ez zuen opa: urrun bekio!

Epaileak 16:16 Dalila, egunero, nazkatzeraino galdezka ari zitzaionez, bizitzaz ere asperturik,

Efesoarrei 4:26 Haserretzen bazarete ere, ez heldu bekatu egiteraino; zuen haserreak ez beza eguzkia sartu arte iraun.

Erromatarrei 14:12 Izan ere, guztiok eman beharko diogu Jainkoari nork bere buruaren kontu.

1 Joan 2:23 Semea ukatzen duenak Aita ere ukatu egiten du. Semea aitortzen duenak Aita ere berekin du.

Joan 14:6 Jesusek erantzun: –Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik.

Mateo 11:28-30 «Zatozte niregana, nekatu eta zamatu guztiok, eta neuk emango dizuet atseden. 29 Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; 30 eramanerraza baita nire uztarria eta arina nire zama».

2 Korintoarrei 6:2 Izan ere, Jainkoak dio: Onginahi-garaian entzun dizut, salbamen-egunean lagundu. Begira, bada, oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

Erromatarrei 10:13 Izan ere, Jaunari dei egin diezaiona salbatuko da.

Pastor T. John Franklin
Church of Salvation, Healing, and Deliverance
COS-HAD.org